




**Haur eta gazte  
transexualitateari arreta  
Kirola eta aisia**

**GIDA AZKARRA**





# Zer da Transexualitatea?



## Zer da?

Jaiotakoan genitalak behatu ondoren **sexu okerra suposatu zitzaien pertsonen egoera.**

Haur eta gazte hauek bere sexu-identitatea **adin ezberdinean adierazi dezakete:** oso txikitan, pubertaroaren hasieran, nerabezaroan...

Ez da erabaki bat, ez da buruko gaitza. **Aniztasunaren beste adierazpenetako bat besterik ez da.**

## Zer behar dute haur eta gazte hauek?

Beste guztiek bezala, **diren moduan ikustea eta onartzea behar dute.**



# Hartu beharreko neurria

01

Bere sexuari **dagozkion izenordainak** erabiltzea.

02

Izena aldatzea erabaki badu, **izen berria** erabiltzea.

03

Taldeak sexuaren arabera banatuta badaude, **bere sexuari dagokion taldean** egoteko aukera izatea.

04

Sexuaren arabera bereizitako janzkera badago, **bere sexuari dagokiona erabiltzeko aukera izatea.**

05

Komunak eta aldagelak sexuaren arabera ezberdinak badira, **bere sexuari dagozkionak erabiltzeko aukera izatea.**



# Nola jokatuko dugu?

01

Berarekin eta bere familiarekin hitz egingo dugu **bere beharrak ezagutzeko**.

02

**Berak horrela nahi badu**, bere begirale edo entrenatzaileari egoeraren berri emango diogu.

03

**Nahi izanez gero, erreferentziatzeko pertsona bat aukeratuko du** edozein arazo komunikatzeko.

04

**Bere intimitatea babestuko dugu**. Bere errealitatea nori jakinarazi eta zer kontatu berak erabakiko du.

05

Izena aldatu badu, **jaiotzean esleitutako izena ez da publikoki agertuko**.

06

Balitzko jazarpen egoerak aurreikusi beharko ditugu.

# Dokumentazioa aldatu behar/ahal dugu?

01

## Erregistro Zibilean datuak aldatuta baditu

Bere datuak **zuzenduko ditugu eta aurrekoen aztarnak ezabatu.**

02

## Administrazio autonomikoaren menpeko dokumentazioa aldatuta badu

Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren bidez administrazio autonomikoaren menpeko dokumentazioa aldatuta badu, **bere datuak zuzenduko ditugu agerian agertzen ez diren estatu mailako dokumentu ofizialetan izan ezik.**


03

## Oraindik datuen aldaketa ez badu egin

**Publikoki agertzen diren datuetan (karneta, zerrendak...) bere izen eta sexu aipamena zuzenduta agertuko dira,** nahiz eta barne dokumentu ofizialetan jaiotzean esleitutako izena agertu.



# Trantsitua



## Zer da?

**Trantsitua deitzen diogu pertsona bat besteen aurrean bere benetako sexu-identitatearekin bizitzera pasatzeko prozesuari.** Garrantzitsua da konturatzea trantsitua ez dela haur eta gazte hauek egiten duten prozesu bat, besteok egiten duguna baizik, bereziki begiradan aldaketari dagokiona.

Trantsitu prozesu hauek **batzuetan itxura aldaketa ekarriko dute eta beste batzuetan ez, batzuetan izena aldatuko dute eta beste batzuetan ez...**

## Taldekideei nola azalduko diegu?

01

### Taldekide bat bere trantsitua egitera doa edo egiten hasi da:

Taldekideak trantsituaren lekuko izango badira, baliteke zalantzak izatea, beraz, egokiena azalpenen bat ematea izango da. Hala ere, pertsonarekin hitz egin beharko dugu eta berarekin adostu aurrean egon nahi duen ala ez, berak hitz egin nahi duen ala ez...

Adinaren arabera azalpena sakonagoa edo sinpleagoa izan daiteke, baina oinarrizko ideia honakoa izango litzateke: “Gure taldekidea ez da neska, uste genuen bezala, mutila baizik (edo alderantziz), eta, hemendik aurrera bere izen berriaz deituko dugu”.


02

### Taldean sartuko den pertsona berri batek trantsitua aurretik egina du:

Taldekideek ez badute pertsona horren berri, egokiena ezer ez esatea izaten da, lehendabiziko harreran aurreiritzirik ez egoteko. Ondoren, pertsona horrek kontatu nahi badu, kontatuko du eta horretarako laguntza behar badu, eskainiko diogu.

Norbaitek horren berri badu eta gaia ateratzen badu, orduan lanketa egin beharko dugu arazoak ekiditeko.

# Gaia lantzeko materialak badaude?



**naizen.eus**

Adinaren arabera gaia lantzeko hainbat baliabide daude.

Hona hemen zenbait:

<https://naizen.eus/eu/baliabideak/>




## Erabilera-eskubideak

Neskek nesken komunak eta aldagelak, eta mutilek mutilen komunak eta aldagelak erabiltzeko eskubidea dute, dituzten ezaugarriak dituztela.

Hala ere, **helburu nagusia pertsona bakoitzaren ongizatea eta segurtasuna bermatzea da** eta, beraz, baliteke pertsona batek dagokion komuna edo aldagela erabiltzeko prest ez egotea. Horrelakoetan, **bestelako aukerak** aztertuko ditugu berarekin batera:

- Hirugarren komuna/aldagela bat erabiltzea, baldin badago
- Komunak sexuaren arabera ez banatzea
- Jarduera fisikoa azken orduan jartzea etxean dutxatu ahal izateko
- Taldeko gainontzekoak baino bost edo hamar minutu lehenago joatea aldagelara
- Taldekako dutxak egoteaz gain, banakako kabinak egotea aldagelan

## Nola kudeatu komunak eta aldagelak?







# Kirol mailako araudiak



## Nazioarteko Batzorde Olinpikoa

Nazioarteko Batzorde Olinpikoa **ez da araudi bakarra inposatzearen aldekoa**, baizik eta nazioarteko federazio ezberdinek euren parte-hartze araudiak ezartzeko jarraitu beharko zituzten zenbait irizpide jartzearen aldekoa.


Horrek esan nahi du, inongo arautegirik ez duela esaten zakildun neska batek ezin duela nesken mailan lehiatu ezta bulbadun mutil bat ezin dela mutil bezala federatu.

**16 urtetik behera**, eskola kirolaren araudiak neska eta mutilen talde mistoak baimentzen ditu, praktikan kirol gutxi batzuetan egiten bada ere.

## Araudi orokorra EAEn

- **14/2012 LEGEA**, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.
- **ALDAKETA 9/2019 LEGEA**, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, aldatzekoa.
- 2016ko Transexualitate-egoeran daudenei arreta integrala emateko gida.
- **234/2015 DEKRETUA**, abenduaren 22koa, pertsona transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa
- **Bidean: Euskadiko jarduera fisiko eta kirolaren legea.**

# Eta gehiago jakin nahi badugu?




## Formazioa









Naizen elkarteak formazioak eta hitzaldiak eskaintzen ditu eta bere webgunean informazio asko aurki dezakezu: <https://naizen.eus/eu/>

## Oinarrizko ideia batzuk

- Mutila izan, neska izan, lotuta daude norberak duen bere buruaren **auto-pertzepzioarekin**, nola identifikatzen den bakoitza
- Norbait neska edo mutila den jakiteko **modu bakarra dago: berari galdetuta.**
- **Genitalek ez dute sexu-identitatea** zehazten.
- Kasurik gehienetan mutilek zakila dute eta neskek bulba dute.
- Kasu batzuetan mutila zela uste genuena (zakila zuelako) neska dela jakiten dugu (hala dela adierazi duelako). Eta alderantziz.
- Transexualitatea sexu **aniztasunaren adierazpenetako bat da.**
- Garrantzitsua da ez nahastea **sexu-identitatea** (nor naiz), **sexu-adierazpena** (nire zaletasunak, nire portaerak...), eta **desira erotikoren orientazioa** (norekin maitemintzen naiz).
- **Gure gizartearen genero estereotipoetatik kanpo egotea ez du esan nahi transexualitate egoeran egotea.** Adibidez, ez da gauza bera neska maskulinoagoa izatea edo bulbadun mutila izatea; eta kasu bakoitzean beharrak desberdinak izaten dira.

# Esamolde okerrak



-  Okerreko gorputzean jaiotako mutilak (edo neskak).
-  **Okerrekorik bada, izatekotan, aurreiritziak eta epaiak izango dira. Gorputzak anitzak dira eta neska-mutil hauen gorputzak aniztasun horren isla dira.**
-  Neska jaiotako mutila (edo alderantziz).
-  **Mutila jaio zen, baina genitalak ikusita okertu eta neska zela pentsatu zuten.**
-  Mutila sentitzen den neska (edo alderantziz).
-  **Mutila sentitzen bada, mutila da; mutil sentitzen diren beste mutil guztiak bezala.**
-  Neska izan nahi duen mutila (edo alderantziz).
-  **Hau ez da nahi izate kontua (bestela inork ez luke biderik zailena aukeratuko). Neska da eta ezin du besterik izan.**



**naizen**

[www.naizen.eus](http://www.naizen.eus)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

laguntzarekin